

AINGERU EPALTZA

«Euskarazko irakaskuntzaren arma
bakarra gelak beterik mantentzea da; hori da
iraupena eta etorkizunerako proiektua
ziurtatzen dion gauza bakarra»

gure kontrako kanpaina mozo-
rrotua egiten ari dira».

Nafarroako Ikastolen Elkar-
teko lehendakariaren ustez,
kontrakanpaina hori Nafarroan
euskaraz izan duen bilakaera-
ren ondoriozuzena da. «Nafa-
rroako Gobernuak ezarri di-
tuen neurrien azken helburua D
ereduan matrikulazioa gutxi-
tzea da. Euskarazko irakaskun-
tza gune abertzaletik ateratzen
hasi da, eta hori arriskutsutzat
jo dute. Hori dela eta, irakas-
kuntza eremu abertzalera itzu-
larazi nahi dute, eta hortik ez
ateratzea lortu nahi dute, gai-
nera», dio Epaltzak.

Eraso horien ondoren zer
gertatuko den ikusteke dago
oraindik, baina Benjamin Ruiz
baikor dago: «Jendearengan
itxaropen handia daukat».

Gogor lan egin

Ondorioz, D eredua indarrean
jarraitu nahi badu, gogor lan
egin beharko da eta aurrematri-
kulazio kanpaina txukun eta in-
dartsua prestatzea ezinbeste-
koa izango da jendea erakar-
tzeko.

Azken batean, Aingeru Epal-
tzaren iritziz, «euskarazko ira-
kaskuntzaren arma bakarra ge-
lak beterik mantentzea da. Hori
da iraupena eta etorkizunerako
proiektua ziurtatzen dion gau-
za bakarra».

ko. Aingeru Epaltzaren aburuz,
«Lanbide Heziketako eta Uni-
bertsitateko ikasketak euska-
rak guztiz egiteko aukera ez iza-
teak iraupen arazoak sortaraz-
ten dizkio D ereduari. Ikasketak
euskaraz eginez gero ondoren
Unibertsitateko egokitze ar-
azoak izango dituztela uste dute
guraso batzuek, eta haurrak le-
henago ateratzen dituzte». Benjamin Ruizen ustez ere
etorkizuneko zailtasun horiek
badute eragina guraso batzuen
erabaketan.

Gorabehera horiez gain, eus-
karazko irakaskuntzak badu
beste oztopo garrantzitsu bat:
Nafarroako Gobernuak hartu
dituen neurri zorrotzak hain zu-
zen ere. Epaltzaren ustez, «Na-
farroako Gobernuaren, erakun-
deen eta intelektualen aldetik

Ikasleen kopuruak gora egin du
Iparraldean

Nafarroan bezalaxe, Iparral-
dean ere lan handia egin da
euskal irakaskuntza indartze-
ko eta zabaltzeko. Ahalegi-
nak ez dira alferrikakoak izan,
eta apurka-apurka, egoera
hobetuz joan da.

Seaskak lehen ikastola
eraiki zuenetik —1969an,
Arragoitzen—, ikastetxe be-
rriak zabalduz joan dira, eta
egun hiru probintzietan 19
ikastola daude guztira. Ika-
sleen kopuruak ere gora egin
du nabarmen: lehen ikastolan
8 ikasle matrikulatu ziren, eta
gaur egun 1.851 ikasle auke-
ratu dute euren ikasketak
euskaraz egitea.

Jendearen eskaria da hain
zuzen Seaskak behar duena,
Frantziako Gobernuak
1994tik aurrera ezarri duen
neurria dela eta, ikasle kopu-
ru bat eduki ezean ezin izan-
go baitute ikastola berririk
eraiki. Lehen beharraren ara-
bera zabaltzen zituzten ika-
stolak, euren kontura, baina
orain gutxienez 15 ikasle iza-
tea eskatzen die Frantziako
Gobernuak.

Gauzak horrela, Michel
Etcheberri Seaskako zuzenda-
riaren ustez, «Seaskaren al-
detik ikasketak euskaraz egi-
teko ez dago inolako oztopo-
rik». Batxilergoko eta Unibers-
titateko ikasketetan euska-
razko aukerarik ez bada ere,
Lehen Hezkuntza osorik egin
liteke euskaraz. Unibertsitate



BOB EDME

■ Michel Etcheberri, Seaskako arduraduna.

eta Batxilergoan, euskarazko
ikasgaiak salbu, gainerako
guztia frantsesez egin beha-
rra dago.

Baina, Michel Etcheberriren
iritziz, Batxilergoa eta karrera
frantsesez egin beharra ez
dute gurasoek kontuan har-
tzen haurra ikastolan matri-
kulatzerako garaian, «ongi
baitakite haurrak euskaraz
ikasi arren, erraz molda dai-
tezkeela Batxilergoa frantse-
sez egitera», dio Seas-
kako zuzendariak.

Gainera, behin
lehen urteetan
haurra ikastolan
matrikulatzen
duten gurasoek
bertan jarraitzen
dute seme-alabek
Lehen Hezkuntza
guztia amaitu arte. Ho-
rregatik, garrantzi berezia
ematen diote Haur Hezkun-
tzako matrikulei, behin jen-
dea erakarriz gero, ziurtatuta
baitago ikasle horiek ikasto-

lan jarraituko dutela ikaske-
tak amaitu arte. Era berean,
haur horien kopurua da ika-
stolek bizirik irauteko bermea.

Azken urteetan Haur Hez-
kuntzako matrikulazio da-
tuek beherakada bat jasan
dute, eta datu horiek kezka
sortu dute Seaskako kideen-
gan. Ikastolek jasaten duten
«kriminalizazio kanpaina eta
ikastolei ezarri dieten fama
txarraren ondorioa
da», adierazi du
Etcheberri.

**MICHEL
ETCHEBERRI**
«Kanpaina polita egin
behar da, eta ahalik eta
jende gehien erakartzea
ezinbestekoa da»

Erasoak
eraso, etor-
kizunari be-
gira itxaro-
pentsu age-
ri da. Gau-
zak ongi anto-
latu eta kan pai-
na polita eta egokia

prestatzea ezinbestekoa de-
la dio Etcheberri: «Kanpaina
polita egin behar da, eta aha-
lik eta jende gehien erakar-
tzea ezinbestekoa da».

Hogeitamabost arrazoi ospatzeko,
matrikulatzeko bakarra

TRAÑA. MATIENA HERRI ESKOLA
(1926 - 2001)



Zorionak!

• Haur hezkuntza • Lehen hezkuntza

Trañaetxoste, z/g

ABADIÑO



TXOMIN AGIRRE
IKASTOLA

— ONDARROA

- Haur hezkuntza
- Lehen hezkuntza
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza
- Jantokia: berton prestatutako janariekin

- Kalitateko hezkuntza:
- Instalazio eta baliabide teknologikoak
- Hezkuntz proiektu berritzaileak
- Etengabeko prestakuntza
- Elkartasunezko programa
- Etorkizunari begira... uberi lagatu...

Iturribarri, 13 • 48700 ONDARROA

Tel.: 94 683 21 39

e-mail: txominagirre@centrosdiocesanos.org
www.centrosdiocesanos.org



Elizbarrutiko ikastetxeak



BERMEOko
institutua

"Ignacio Arocena"
Matxitxako bidea, z/g

Tel.: 94 618 67 40 • Faxa: 94 618 67 39

"Benito Barrueta"
Esparru z/g

Tel.: 94 688 44 00 • Faxa: 94 688 45 62

01-02 Ikasturtea

- | | |
|-------------------|-------------------------------------|
| * D.B.H. | Erdi Mailako Heziketa Zikloak |
| * Batxilergoa | * Administrazio kudeaketa |
| * Teknologikoa | * Lorazaintza |
| - Natur eta | * Kontsumorako Ekipo Elektronikoak |
| Osasun zientziak | Goi Mailako Heziketa Zikloak |
| - Giza eta | * Administrazio eta Finantzak |
| Gizarte Zientziak | * Produktu Elektronikoaren Garapena |



ESKOLA PUBLIKOA

Zearreta, 6 • GERNIKA-LUMO
Tel./ Faxa: 94 625 14 55
Tel.: 94 627 01 22

Haur eta lehen Hezkuntza

- | | |
|--|---|
| • Metodologia berria | • Jantokia eta garraioa |
| • Ikasleen beharizenetara egokituriko heziketa | • Eskolaz kanpoko ekintzak |
| • Ingelera lau urtetik aurrera | • Liburutegi zerbitzua |
| | • Matrikula zabalik otsailaren 5etik 16ra |